



2017KO URTARRILAREN 12KO BILKURAKO AKTA

Organoa: Orendaingo Udaleko Plenoa
Tokia: Orendaingo udaleko Areto Nagusia
Deialdia: Lehenengoa
Hasiera data: 19:00etan
Amaiera data: 21:00tan

Bertaratuak:

Gorka Egia Arregi. Alkatea
Miguel Angel Arsuaga Azurmendi. Zinegotzia
Ibon Gonzalez Galarraga
Eli Garaialde Garmendia

Idazkaria: Nekane Lopetegi Etxeberria

GAI ZERRENDA

Jose Luis Jimenez Hernandez jaunak tarteratu duen errekursoaren inguruan ebazpena onartzea.

JOSE LUIS JIMENEZ HERNANDEZ JAUNAK TARTERATU DUEN ERREKURTSOAREN INGURUAN EBAZPENA ONARTZEA

Kale eremuko 7 lursailaren lehen okupazioa eta habitabilitate baimenaren inguruan udalak hartutako erabakiaren aurka tarteratu den birjapen errekursoari erantzuteko eta ebazteko bildu dira bost kideetatik lau kide.

Ikusirik, Jose Luis Jimenez Hernandez jaunak jarritako birjapen errekurtsoa, Orendaingo udalak 2016eko urriaren 27eko Bilkuran hartutako akordioaren aurkakoa.

Ikusirik, 2016 eko urriaren 27ko Bilkuran, besteak beste honako erabaki hartu zela eta eduki honetako 4. eta 5. puntuen legearen aurkakoak direla esanez, baliorik gabe uztea eskatzen da:

“**Bat.**-Obraren amaiera, aurkeztutako proiektuaren arabera egina dagoenez, lehen okupazio eta bizigarritasun baimena onartzea.

Bi.-Indarrean dagoen udal agintarauen arabera, eraikuntza eta zerga kontzeptuan 3.129,29 euro udalari ordaintzeko likidazioa luzatzea.

Hiru.-U-4 inprimakia Foru Ogasunean sarrera eman eta udalean aurkeztea.

Lau.- Kale eremu eta bizitzen helburua ez bete izanak baldintza pleguko 8. klausulak diotenaren arabera 7.573,93 € ordaintzeko likidazioa luzatzea. Eta baldintza pleguko 12. klausulan esaten dena betetzeko, udaleko arkitektoari balorazioa egitea eskatzea.

Bost.-Urbanizazio lanetarako beste bizilagunek egindako ekarpena 12.000 eurotakoa, ordaintzeko dagoenez, ordaintzeko likidazioa luzatzea.

Sei.- Eskritura berriak egiten direnean ur-beltzen saneamendu sarearen zortasuna jasotzea

Zazpi.-Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.”



Ikusirik, Osoko Bilkuraren erabakiaren bosgarren puntuak dioenaren aurka ondorengo alegazioak adierazten dituela:

.-Hirigintza zorrak, jabetza erregistroan inskribatuak ez daudenez ezinezkoa dela titular batetik beste titularrera aldatzea Lurzoruaren testu bateratuak, 27 artikuluan adierazten du, jabe berria eskubide eta betebeharretan aurreko jabeen betekizun berdinetan aurkitzen dela, beti ere jabetza erregistroan zorraren inskribazioa egina badago .

Ikusirik, Osoko Bilkuraren erabakiaren laugarren puntuak dioenaren aurka ondorengo alegazioak adierazten dituela:

.-Baldintza pleguen 8 eta 12 klausulen ez betetzeak isunak ezartzen dituela: Proiektuaren behin betiko aurrekontuaren %3 a alde batetik eta eremuaren urbanizazio lanen zatia, auzian dagoen partzelari dagokionean kalkulatu eta isuna betearaztea eskatzen dela. Honen aurrean esaten da:

.-Duela 15 urte burututako arau haustea dela eta aurreko jabeak burutua .

.-Udala behartuta dagoela zigor espedientea burutzea 39/2015 legediak bere artikuluetan xedatzen dituen urratsak beteaz. Eta zigor espedientea aurreko jabeari zuzendu behar litzaiokeela.

Gertaturik, Urbanizazio lanen ekarpena, hau da erabakiaren bostgarren puntuari dagokionean:

1.-Udalak urbanizazio lanak burutzeko hitzarmen bat sinatu zuen Kale eremuko jabeekin, udala eta beraien arteko akordio batetara iritsi zirelako.

2.-Kale eremuko auzian dagoen lursailaren jabearekin hitz egin bazen ere hitzarmena sinatzea ez zen iritsi.

3.-Auzian dagoen lursailaren jabeari zigorrria ezarri behar zitzaion eta jabetza erregistroan inskribatu . Expediente hori ez zen burutu, eta jabetzan erregistroan hirigintza karga hau ez da konstarazten.

Gertaturik ,Baldintza plegua ez betetzearen inguruan:

1.-Tolosako Jabetza erregistroko 1805 tomoa Orendaingoa, eta 166 orrialdean, udalak, aurreko jabeari esleitu izanaren inskribazioa dago .(ebazpenari eransten zaio).

Inskribazioa 2001 eko azaroaren seian egin zen eta esleipena arautu zuen baldintza plegua ere aipatzen da.

2.-Baldintza pleguan ezarri bezala, obra baimena eskuratu zenetik 12 hilabete epea zuen obrak amaitu eta bertan bizitzeko. Obra baimena, 2001 eko maiatzaren 11ekoa da eta obra amaiera 2003ko maiatzaren 11 izan behar zuen. Epe honetatik aurrera , baldintza plegua ez betetzearen data kontatzen hasten da. Ondorioz, ez dira 15 urte igaro, 13 urte baizik. Beraz, 15 urte baino gehiago igaro direla esatea ez da zuzena.

3.-Tolosako Jabetzako erregistroaren egiaztagirian ikusi daitekeen bezala, Caja Rural de Navarra , Sociedad Coperativa de Credito ,bere nortasun agiria F-31-021611 izanik, Tolosako epaitegiak 216/2013 hipoteka exekuzio bidez izapidatu den prozeduran amaieran luzatu duen 2015 eko maiatzaren 15ean Dekretuan, lursaila eta bertan exekutatu dagoenaren jabetza eskuratzen duela. Caja Rural Navarrak eskuratu duenean, aurreko jabearen eskubide eta betebehar osoak eskuratu ditu gainera , Tolosako jabetza erregistroaren bidez, eraikin honek eta lursail honek zituen eskubide eta betebeharrak bertan adieraziak zeuden. Beraz, Kode zibilaren



kontratuaren xehetasunetan esaten denez, eskubide eta betebeharretan Caja Rural Navarrak aurreko titularra ordezkatzeko du.

4.-Baldintza pleguaren prestaketa eta esleipena, kontratazio legediaren babesean burutuak izan dira, aldiz, kontratu edo eskritura publikoa notariatzen aurrean egiteak arlo pribatura eramaten gaitu, Administrazio publikoetako garai horretan indarrean zegoen 13/1995 legearen 5.3 artikulua ere xedatzen duen bezala. Ondorioz, jurisdikzio zibilaren alorrean kokatzen garenez, zigor espedienteak eskatzeak ez du inolako zentzurik.

AINZAT HARTUTA Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.j) artikuluan ezarritakoa, administrazio prozedura arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arau aplikagarriak, prozeduren tramitazioari dagokionean, eta Kode Zibilaren artikulua aplikagarrietan ezarritakoa.

Aipatutako aginduak eta oro har aplika daitezkeen guztiak ikusirik, Orendaingo Udaleko Udaltzako, aho batez, honako hau hartzen dute:

AKORDIOA

Lehenengoa: Orendaingo udalak 2016ko urriaren 27ko Bilkuran onartutako akordioko bosgarren puntua baliorik gabe uztea, bertan behera, udalak eskubidea izan arren dagokion prozedura jarraitu ez duelako eskubideari uko egitea.

Bigarrena: Orendaingo udalak 2016ko urriaren 27ko Bilkuran onartutako akordioko laugarren puntuaren inguruan tartaratu den errekurtsioa ez onartzea, eta udalak 2016ko urriaren 27ean hartutako erabakiaren 4 puntuarekin aurrera jarraitzea.

Hirugarrena: Jose Luis Jimenez Hernandez jaunari akordio honen berri ematea,

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak

Alkateak

Idazkariak